

Ikastetxe pribatuek irakaskuntzan izan duten gastua %13,3 hazi da 2003-2005 denboraldian


Ikastetxe pribatuek 2005. urtean izan zuten gastua BPGaren %1,45 izan zen.

EUSTATen datuen arabera, 2005. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan 415 ikastetxe pribatu eta 190.000 ikasle inguru zeuden; eta gastua 834 milioi eurora igo zen, hau da, 2003. urtearen aldean gastua %13,3 gehitu zen. BPGari dagokionez, gastu hori 2005. urtean BPGaren %1,45 izan zen.

Gastu osoaren %93,6 gastu arrunta izan zen eta gainerako %6,4a kapital gastua. Gastu arrunta 781 milioi eurokoa izan zen; bada, horren %91 irakaskuntzarako erabili zen, %1 jarduera osagarrietarako eta gainerakoa, %8, irakaskuntzako zerbitzu osagarrietarako (jantokia eta garraioa batez ere).

Ikastetxe motaren arabera, unibertsitate aurreko mailak dituzten ikastetxeetan gastu osoaren %87 erabili zen, %10,4 goi-mailako ikasketak dituzten ikastetxeetan eta %2,6 irakaskuntza artistikoa duten zentroetan.

1. grafikoa: EAEko ikastetxe pribatuen irakaskuntzarako gastuaren bilakaera, ikasleen arabera (€)



Iturria: EUSTAT

ADIERAZLEAK

Ikasle eta ikasgela bakoitzeko gero eta gastu handiagoa egiten da; izan ere, aurreko bi urtekoetan izan zen antzeko gehikuntza eman da. 2003tik 2005era bitartean, ikasle bakoitzeko irakaskuntzaren gastuak %13 hazi ziren, eta talde bakoitzeko gastuak %6,8.

2005. urtean, **eskola-unitate edo talde bakoitzeko irakaskuntzaren kostuak** 57.882 eta 71.438 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, hurrenez hurren. Erdi mailako irakaskuntzan kostu hauek izan ziren: 87.353 euro Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH), 80.969 euro Lanbide Heziketan (LH) eta 105.409 euro batxilergoan. Helduak hezteko unitatearen kostua (Helduen Hezkuntza) 31.278 eurokoa izan zen. Oro har, ratio txikiak ikastetxe erlijiosoak izan ziren.

Ikasle bakoitzaren irakaskuntzarako kostuak 3.051 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan, 3.609 eurokoak lehen hezkuntzan, 4.352 eurokoak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 4.597 eurokoak batxilergoan eta 4.870 eurokoak Lanbide Heziketan. Unibertsitatean ikasle bakoitzeko gastua 4.691 eurokoa izan zen eta 1.561 eurokoa Irakaskuntza Artistikoetan.

FINANTZAKETA

Ikastetxe pribatuaren **sarrera osoa** 795 milioi eurokoa izan zen; horien %98 sarrera arruntetan eman ziren eta %2 kapital sarreretan. Sarrera arrunten jatorri nagusia, %66, diru-laguntza publikoak izan ziren. Gero irakaskuntzako kuotak (%18) eta zerbitzu osagarrietakoak (%8) daude.

2005eko ekitaldian 53,2 milioi euroko inbertsioa egin zen, hau da, 2003. urtean baino %19,3 handiagoa zen inbertsioa. Kuotak %6 gehitu ziren, hazkunde orokorraren batez bestekotik behera. Diru-laguntza pribatuak %22,89 gehitu ziren, publikoak (%15,16) baino gehiago, hain zuzen ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe pribatuetan eskolako garraio eta jantokirako **ikasle bakoitzeko batez besteko kuotak** 500 eta 635 eurokoak izan ziren hurrenez hurren. Ikasle bakoitzeko irakaskuntzarako kuotak 452 eta 315 eurokoak izan ziren haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan; 340 eurokoak DBHn, 476 eurokoak erdi mailako Lanbide Heziketan, 633 eurokoak goi mailako Lanbide Heziketan, 628 eurokoak Irakaskuntza Artistikoetan, 756 eurokoak batxilergoan eta 3.908 eurokoak unibertsitateko ikasketetan.

1. taula: Aldagai nagusien bilakaeraren laburpena

	1993	1995	1997	1999	2001	2003	2005	Δ 2005 / 2003	(1) Δ 2005 / 1993
Guztizko gastua (mila €)	502.212	480.732	559.807	596.793	680.274	736.529	834.401	13,3	3,3
Ikasleko irakaskuntza-gastua (€)	1.558	1.780	2.131	2.492	2.911	3.300	3.727	13,0	4,9
Gelako irakaskuntza-gastua (€)	41.476	46.122	54.634	59.714	65.635	69.744	74.509	6,8	3,2

(1) Urteroko batez besteko tasa metatua

Iturria: EUSTAT

Oharra: inkesta hau Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) laguntzarekin egin da.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp